

## kolaborazioak

**Berriro ere, hemen herri bat dago, makina bat aldiz, eta alde guztietatik ukatua eta kolpatua. Eta herri horrek Auto-Determinatzeko eskubidea eskatzen du. Zergatik ez da puntu hau behin eta betirako mahaiaren gainean jartzen?**

## Noiz arte?

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» • Idazlea

**G**aur goizean "Radio France"ren telefono-dei batek harritu nau. Zamarreñoren hil-keta dela-ta, hango jendeak Euskal Herrian gertatzen ari dena ez omen duela ulertzen, eta ia galdera batzuk erantzuteko prest ote nengoen.

Bestela sekula galderarik egiten ez digutenek ere, gaur bai.

Anitz aldiz eztabaidatuak galderak eta emandako erantzunak hemen errepikatzeak ez luke ezertarako balioko. Beude isilean, beraz, haiek eta hauek.


Ez didate Juan Mari Quintana ertzain zaurituri buruz ezertxo ere galdetu.

Galdera horixe izan zitekeen, ordea, gaurko gure egoera hits eta odoltsu honi buruz argi printzen bat ekar lezakeen bakarra.

Guk bagenekien (baina berriro ere azaldu da ezin garbikiago), Ertzantzak eskuz esku elkarurik darumala bere burruka Euskal Herrian, espainiar «Fuerzas de Seguridad del Estado» delakoekin bat eginik.

Eta hori ezin adierazgarriago gertatzen da une honetan.

Hain zuzen ere, Oreretako gertatzean, egun bakan batzuk besterik ez ziren pasa, Ertzantzak Ina



Zeberio etarrari bere balak soinean sartu zizkionez geroztik. Eta orain jakin dugunez, bateratsu eskainia zion Zamarreñori bere bizkar-zainka hertsia.

Tratu-desberdintasun hau, ezin nabarmenago agertu da bi gertakarien elkar-gainetakoan.

Hots, Zamarreñoren Partiduak Euskal Herriaren nazio-eskubideen ukazioan du bere funtsa; ETAK, aldiz, eskubide horietan atortzen bere ardatza duelarik.

Orain dela mendebete l'erdia, gure herriaren parte handi batek ez du ontzat ematen Madrilek jatorrian indarrez ezarritako legetasuna. Besteak, aldiz, urteen joanak eta aldaketarako ezintasunak dakarten akiduraz, hemendik edo handik legetatutako «soluzio» hori onartzen du.

Bistan da Oreretako gertaera tamalgaria dela. Baina beste hamaika gertaera tamalgari ere gauzatzen da herri honetan aspaldidanik, gaur minduta agertzen zaizkigun horiek txintik ateratzen ez dutelarik.

Berriro ere, hemen herri bat dago, makina bat aldiz, eta alde guztietatik ukatua eta kolpatua. Eta herri horrek Auto-Determinatzeko eskubidea eskatzen du. Zergatik ez da puntu hau behin eta betirako mahaiaren gainean jartzen?

Ertzantzak, aldiz, espainiar legetasunaren defentsa mugagabea hautatuz, gure herriaren eskubide funtsezkoen ukazioa hartu du gidari.

Eta Euskal Herriaren erdibiketa hau ez da batere berria.

Onatiar jeneral honek, askoz geroago jakin nuenek, ez zuen Bergarako Besarkadaren ondoriozko akordioa onartu; eta Iparraldera joan zen ibesi 1839an bere soldadu arabarrek.

Hots, Joakin Alzaa militar hura, hain zuzen, Katedratikoa izan zen Onatiko Unibertsitatean 1833ra arte; eta jurista ikasia urte haietan. Alegia, ez gero itsatsi zaizkigun askoren kastakoa.

Handik bederatzi urtera, 1848 urte famatuan, onatiar ospetsuak bere lege-karrera hondaturik, eta bere 40 urteetan, eta familiaz heldu zitzaizkion ondasunak oro arriskatuz, berriro ere gerra egitera itzuli zen Gipuzkoara karlistekin, eta liberalen kontra.

Horretara Katalunian gauzatu zen «matiners» izeneko erdi-karlistadako euskal martiri bakarretakoa bihurtu.

Baina ez noa horretara neure honetan. Euskal «Policia Autonómica» guztien historia apur bat gogoraztera baizik.

Mikelete giputz liberelek eta espainiar guardia-zibilek Espainiako legetasun ofizialaren alde bat eginda axilotilo zuten Alzaa onatiarra Atunen utzailaren 2an, eta biharamonean bertan Zaldibian afusilatu. Operazio zipaioaren buruzagia Urbistondoko damutua izan zen.

Ez dizue honek guztiak ezer iradokitzen? Ez dira gaurko kontuak Jakina!

Baina oraindik ez bide dugu ezertxo ere ikasi.

## semaforo gorria



Xabier AMURIZA

## Euskararen liburu ergela

**J**an den asteen liburu deigarri baten berri jakin nuen. Hitzak hitza zekarrela, lagun batek esan zidan: «Hi! Ba, lehenago liburu baten aurkezpenean izan nauk eta kazetariok ere zurtuta geratu gintuan». Datuak ez zituen zehazki gogoratzen eta, telefonoz emango zizkidala agindurik, horixe egin zuen etxetik. Hala ere, zehetasun batzuk airean dauzkat, telefonoaren laburtasunean galdetzerik gogoratu ez zitzaizkidanak. Ez nago ziur aurkezpena Bilbon ala Gasteizen izan zen eta zein egunetan. Hiru aurkeztetarik liburuen egitea zein den ere ez nago guztiz ziur, nahizta segurrenik laster

esango dudana izan. Semaforo hau idazten hasi naizenean, informazioa zehatzeko kazetariaren bila zebaterak ez nahasteagatik, zehetasun horiek airean utziko ditut, garrantzitsuenak ondorengo hau baita.

Liburu aurkeztuaren izenburua: «Anotaciones críticas sobre el problema lingüístico en Alava. Historia de una colonización». Aurkezleak: José Ignacio Uruñuela, historialaria; Antonio Sáez de Santamaría, UAKO idazkari nagusiordea; eta Adolfo Carrea. Liburuaren egilea badirudi José Ignacio Uruñuela historialaria dela, berak eroan omen baituzen aurkezpenaren hari nagusia. Dena

dela, garrantzitsuenak zer esan zuten da. Lehenik, liburuaren izenburuak nahikoa lorratz ematen du zabaldu nahi zuten mezuaz. «Historia de una colonización». Ez da, noski, Araba euskaldunean, dena delako garaian, gaztelania nola nagusitu zen. Oraingoaz ari gara. Euskararen inbasioaz. Gure hizkuntza errukarria da Araba kolonizatzen diharduena.

Historialariak honako ideia orjinalak jaulki zituen. Euskara «museo hizkuntza bat» dela. Ondo dagoela «oraindik prostitutu gabe» dagoen tokietan gordetzea (Mendexan, Zerainen, Goizuetan eta horrelako tokietan izango da, ezta?), baina ez

dela zentzuzko museotik kaleratzen saiatzea. Euskara ez dela hizkuntza «funtzionala», ez duela bizitza modernorako balio. (Argumentu hauek Unamuno, Baroja, Maeztu eta horienagandik ezagun genituen, ezta?). «Euskarak ez du balio, ez sonetoak egiteko, ez maitasungintzarako». Hizkuntza honek Araba ganoraz kolonizatu izan balu, jakin behar zuten Alfonso Irigoienek, adibidez, soneto hutsezko poema liburu eder bat idatzi zuela. «Herriaren gara bizi» izenekoa. «Guk euskara oso maite dugu —zieten—. Hizkuntza ederra eta miresgarria da. Colonen «Carabela» ere oso bitxia eta maitagarria denez, baina gaurko nagibagiazorako ez du balio.

Lehendik ere entzunaren entzunetz gatastak genituen

argumentu hauetan, maitasun kontua txokatu zait gehien. Euskarak horretarako balio ez badu, ez dakit euskaldunek zertatik irauan duten historiaurretik gaur arte. Gainera ez al dute oraindik entzun amodioaren hizkuntza unibertsala dela? UAKO «carabelero» hauek ez dute askorik jigmatzen, antza. Baina hemen dator itzelen. «Euskarak ba al dakizu?», galdetu zioten liburugileari eta ezetz. «Beno, baina, euskarak jakin ez arren —ekin zioten—, lagun euskaldunak izango dituzu, ezta?». Berriro ere ezetz. Ez da harrizkoa kazetariak nora begiratu ez zekitela geratzea. Hauekin eta antzekoekin beste dibertsio bat osa lezake Torrealdaiak. izenburu honekin: «El libro tonto del Euskara».